



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2021eko MAIATZAREN 4ean EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2021eko maiatzaren 4ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Shrabani Aranzabe Pita
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ 2021eko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Oporrak Bakean Programa alternatiboa burutzeko diru-laguntza eskaeraren onespena.**
5. **Oiargi Mendi Elkarateak eginiko diru-laguntza eskaera, 2021eko ekainaren 13an T3T eta T2T mendi maratoiak ospatu ahal izateko, antolaketaren finantziazioan laguntzeko.**
6. **Tolosaldeko Komunikazio Taldeak eginiko diru-laguntzaren eskaeraren onespena.**
7. **Alkizako Sormenaren Kabia: deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena.**
8. **2021 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
9. **Alkizako Erretore-etxean egin behar diren hainbat egokitzapen lanen esleipena, hala bada.**
10. **Genero indarkeriaren aurrean Alkizako Udalak jarraituko duen protokoloaren onespena.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

11. Europa egunean udaletxeko balkoian, Europako, udalerriko eta Ikurriña jartzeko proposamenaren azterketa.
12. Alkizako Udalaren armarri berriaren onespena.
13. Beste batzuk.
14. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2021eko martxoaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 60/2021etik 81/2021ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	355,00
GUREAK	9,09
EUSKALTEL	21,05
OSCAR GALINDO	121,00
VICENTE ERROTULAZIOA	1.033,34
EBA ERKIZIA	1.682,00
SOLRED	122,46
ORANGE	10,34
MAQUELSA	34,70
RECAMBIOS IBARRA	5,32
ANTONIO ELOSEGUI	4,25



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ARGITU	183,42
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	66,20
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	56,00
EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK	13,94
ANTONIO ELEOSEGUI	19,36
IZADI	193,60
BORDETXE	423,50
TINDU MARGOAK	7,50
ARREGI ETXABE JUAN JOSE	104,54
QUISER	277,60
CUALTIS	151,56
CUALTIS	606,24
CALPARSORO INDUSTRIAL	174,17
CARPINTERIA KIMU	121,00
DEKOARBERAS	46,69
ULAHI	578,33
OTIS	443,44
GOIENER	36,15
GOIENER	53,55
LAVANDERIA LIZARRA	104,67
GOIENER	325,10
GOIENER	318,53
GOIENER	478,82
GOIENER	313,15
GOIENER	125,37
GOIENER	174,78
GOIENER	120,42
GOIENER	21,63
NORTEGAS	19,51
NORTEGAS	274,59
MOVISTAR	179,08
MOVISTAR	61,45
IBERDROLA	24,12
ORANGE	170,49
NORTEGAS	254,80
IRATZE	508,20
GUREAK	4,57



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **10.434,62** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

OPORRAK BAKEAN PROGRAMA ALTERNATIBOA BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA

Ikusita Euskadiko Saharar Ordezkaritzak eginiko diru-laguntza eskaera, Oporrak Bakean Programa Alternatiboak antolatzeko, COVID-19 pandemiaren ondorioz, Oporrak Bakean programa 2021urtean bertan behera gelditu delako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programa alternatiboan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programa alternatiborako, 2021eko udal aurrekontuetako 481.334.00.01 Kontu sailan, 500,00 euro aurreikusi dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Euskadiko Saharar Ordezkaritzari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

OIARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, 2021EKO EKAINAREN 13AN T3T ETA T2T MENDI MARATOIAK OSPATU AHAL IZATEKO, ANTOLAKEAREN FINANTZIAZIOAN LAGUNTZEKO

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2021eko ekainaren 13an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrek) maratoiaren VI. Eta T2T erdi maratoiaren IV. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, parte-hartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2021eko ekainaren 13an ospatuko diren T3T VI. Eta T2T IV. edizioetan antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2021 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. -ren arteko 2021 urterako Lankidetzaren Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetzaren hitzarmenaren, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetzaren hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2021 urterako balioa izango du.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.448,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2021eko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.448,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: DEIALDIAREN HASIERA ETA OINARRIEN ONESPENA

Ikusirik Alkizako Sormenaren Kabia Bekaren 2021 urterako deialdirako oinarriak prestatu direla.

Kontutan izanik, udal batzarkideek, aipaturiko deialdiaren oinarriak aztertu dituztela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Sormenaren Kabia Bekaren deia egitea 2021. urterako.

BIGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2021eko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea.

HIRUGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2021eko ekitaldiko epaimahaia onartzea.

LAUGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren 2021eko edizioan hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 2tik uztailaren 5era bitartean indarrean egongo da, bi datak barne.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren oinarri arautzaileak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren atarietan ikusgai jartzea. Hala, edonoren eskura daude www.alkiza.eus eta fagus-alkiza.eus web orrialdeetan.

SEIGARRENA: 2.000,00 eurotako gastua onestea udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kargura.

ZORTZIGARREN PUNTUA
2021 URTERAKO URA ETA ZABOR TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2021 urterako ura eta zabor taseen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 28arte (biak barne).

Aipaturiko epean bost eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- C.C. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- A.P.P. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

HIRUGARRENA.- M.J.O.-eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.- V.M.-ri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- L.B.-ri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

SEIGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunei jakinaraztea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO ERRETORE-ETXEAN, APAIZ ETXEAN KOMUN BERRI



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BAT EGITEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du erosi berria duen Alkizako Erretore-Etxeko, apaiz etxean komun berri bat egiteko lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: IRAUGAR IGELTSERITZA, S.L.; ISMAEL BAZ HERNANDEZ eta LARUN 2012 enpresei hain zuzen.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, IRAUGAR IGELTSERITZA, S.L. enpresarena, kontzeptu guztiak kontutan izanik merkeena dela aurreikusten da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. *Obra* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: IRAUGAR IGELTSEKITZA S.L. *enpresari*, Alkizako Erretore-Etxeko, apaiz etxean komun berri bat egiteko lanen kontratua esleitzea 7.889,01€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 622.150.00.02 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Iraugar Igeltseritza, S.L., Ismael Baz Hernandez eta Larun 2012 enpresei ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

GENERO INDARKERIAREN AURREAN ALKIZAKO UDALAK JARRAITUKO DUEN PROTOKOLOAREN ONESPENA

Ikusita, Genero indarkeriaren aurrean, Alkizako udalak jarraituko duen protokolo bat prestatu dela, non ondorengoa dioen:

GENERO INDARKERIA: NOLA LANDU ALKIZAN



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

PREBENTZIOA

- Eskolarekin eta Berdindibidean Programarekin batera prozesu bat jarriko da martxan. Emagin Elkarteak bideratuko du prozesua. Proposamena adosten ari gara une honetan.
- Datorren urtera begira, herriko gazte, guraso eta gizonezkoentzako lantegiak antolatuko dira. Beti ere Berdindibidean-ekin koordinatuta. Horretarako diru-partida bat aurreikusi behar da aurrekontuetan.
- Datorren urteko jaiei begira, herriko gazteekin eraso sexisten Gaia landuko da. Dinamizatzailer baten gidaritzapean, herriko gazteek eraso sexistak nola ekidin behar diren eta kasuren bat izanez gero nola jokatu behar den aztertuko dute. Prozesu horren amaieran triptiko bat kaleratuko. Asteasun egin zutena erabili dezakegu eredu moduan.

Oharra: Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gaztematika" programaren bidez, 12 eta 16 urte arteko neska-mutilentzako proiektu bat lantzen ari gara. Dena ondo bidean, aurtengo udazkenean martxan izango da. Programa horren bidez, besteak-beste, genero berdintasuna ere landuko da. Bi hezitzaile Alkizara etorriko dira hainbat saio eskaintzera. Une honetan prozesua definitzen ari gara buru belarri. Hortaz, Alkizako Udala genero berdintasuna lantzeko egiten ari den apustua osatuagoa geratuko da.

PROTOKOLOA

- Udal arduradun bat izendatu: Shrbani Aranzabe .
- Udal arduradun horrek udal-langileei azaldu beharko die Alkizako Udalak adostutako protokoloa zein den.
- PROTOKOLOA
 - o Abisuren bat jasoz gero eta biktima arriskuan badago, Ertzaintzara, 112-ra deitu behar dugu.
 - o Erasoren bat badago, biktima gizarte zerbitzuetara bideratu behar dugu.
 - o Gizarte Zerbitzuetan egoeraren diagnostikoa eta balorazioa egingo dute. Ondoren, aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologiko zein ekonomikoa eskainiko dizkiote biktimari.
 - o Bestalde, herrian protokoloen inguruko informazioa eta esku-orriak banatuko dira.
 - o Udalaren webean esku-orriak eskura daude.

ERANTZUN SOZIALA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Alkizako Emakume Taldea sortzea sustatuko dugu Udaletik.
- Herri sarreretan Alkizan genero indarkeriarik onartzen ez duela adieraziko duten kartelak jarriko dira. Karteleko mezua parte hartze prozesu baten bidez erabakiko da. Prozesu horrek emakume taldea sortzeko aitzakia eman dezake eta akuilu egokia izan daiteke.
- Larrialdi kasuren batean Alkizako Udalak etxebizitzaren bat eskura izan behar ote lukeen aztertu behar da.
- Alkizako Udalak zergak kendu beharko lizkieke biktimei

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENEGOA.- Genero indarkeriaren aurrean Alkizako udalak jarraituko duen protokoloari bere onespena ematea.

BIGARRENGOA.- Protokoloa, web orrian zintzilikatzea eta triptiko,a web orrian eta udaletxeko iragarki taulan jartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

EUROPA EGUNEAN UDALETXEKO BALKOIAN, EUROPAKO, UDALERRIKO ETA IKURRIÑA JARTZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA

Maiatzaren 9an herritar europarrok Europaren Eguna ospatzen dugu. Europar Batasunak, europarron proiektu amankomunak, gure kontinentera bakea, giza eskubideak eta ongizatearen gizartea ekarri ditu Bigarren Mundu Gerrak sortutako izugarrikeriak gainditzeko helburuarekin.

Jakitun gara Europar Batasunaren egungo proiektuak ez dituela betetzen gure nahiak herritar eta herri moduan, gabezia nabarmenak dituela, arrazoi ekonomikoak nagusitzen zaizkiela arrazoi sozialei eta estaturik ez dugun naziook ez gaudela behar bezala errekonozituak. Alabaina, herri bezala aurrera egin nahi badugu, demokraziaren, bakearen eta giza eskubideen balioei eutsi nahi badiogu, europar proiektu amankomuna dela bermerik handiena gaurko mundu globalizatuan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hori guztia dela eta, Europaren Eguna ospatzekoa dela proposatzen dugu, ospakizun hori gauzatuko dugula udaletxeko balkoian herriko, Euskal Herriko eta Europako banderak zintzilikatuta.

Gaia azterturik, gaia bozkatu egiten da, ondorengo emaitza duelarik:

-Aldeko bozkak: Irazabalbeitia, Aranzabe, Aranzabe, Jauregi, Otegi Alkate/zinegotziek.

-Kontrako bozkak: Ez daude.

-Abstentzioak: Sorarrain zinegotzia.

Beraz, bozketa emaitza ikusita, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Europaren Egunaren ospakizuna gauzatzeko onespina ematea, horretarako udaletxeko balkoian herriko, Euskal Herriko eta Europako banderak zintzilikatuko direlarik.

HAMABIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALAREN ARMARRI BERRIAREN ONESPENA

Ikusita Alkizako udalaren armarrri berria prestatu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako udalaren armarrri berria onestea, eta hemendik aurrera ondorengo erabiltzea orri ofizialetan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)



ALKIZAKO UDALA



ALKIZAKO UDALA

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

13.1. ALKIZAKO ERRETORE-ETXEAN KOMUN IRISGARRI BAT EGITEKO LANEN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du erosi berria duen Alkizako Erretore-Etxean, komun irisgarri bat egiteko lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: IRAUGAR IGELTSERITZA, S.L.; ISMAEL BAZ HERNANDEZ eta LARUN 2012 enpresei hain zuzen.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, IRAUGAR IGELTSERITZA, S.L. enpresarena, kontzeptu guztiak kontutan izanik merkeena dela aurreikusten da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. *Obra* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: IRAUGAR IGELTSERITZA S.L. *enpresari*, Alkizako Erretore-Etxean, komun irisgarri bat egiteko lanen kontratua esleitzea



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

4.583,08€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 622.150.00.02 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Iraugar Igeltseritza, S.L., Ismael Baz Hernandez eta Larun 2012 enpresei ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA
MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakariorde Jaunak bilkura 20.12-etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

